



Etorkizuneko erronkei begira abiatuko du Kultura mahaiak agintaldi honetako bere ibilbidea

- **Eskutik helduta, hausnarketak partekatu eta etorkizuneko erronkei begira jartzea izango da mahai horren helburua**
- **Marta Lasa, Kultura zinegotzia: “Beharrezkoa dugu kultura herri gisa eratzeko, sendotzeko, eta eboluzionatzen jarraitzeko”.**
- **Kultur eragile guztiak deitu ditu bertara udal gobernuak**

Andoainen, 23-09-13- Ikasturtea hastearekin bat, arlo ezberdinak epe labur zein luzerako helburuetara begira jarri gara Andoaino Udalean; horien artean, Kulturako sailean. Askotarikoak dira gaur egun Kulturaren arloak dituen hausnarketak, erronkak, eta erabakiak.

Ez dira garai samurrak orokorrean; pandemia garaiak orban sakona utzi du sektorean, baldintza administratibo zein ekonomikoak zorrotz egin dira, lan boluntarioak ere ez ditu bere garai onenak bizi... baina, era berean, Marta Lasa Kultura zinegotziak uste du “ezin dela ulertu herri baten etorkizuna kulturarik gabe”: “Beharrezkoa dugu kultura herri gisa eratzeko, sendotzeko, eta eboluzionatzen jarraitzeko. Udal gobernuak uste du, gainera, kulturaren habeak sendoak direla Andoainen, horren erakusgarri astez aste arloan ematen den eskaintza zabala, dagoen mugimendu kultural anitz eta zabala. Baina horrek ez du esan nahi bideak bere horretan ez dituenik harriak, ez dituenik oztopoak”.

Horregatik, Kultura Mahaiak martxan jartzea erabaki du udal gobernuak. Ondo dagoenaz zein ez dagoenaz hausnartu, erronka partekatuei heldu eta elkar-hartuta, etorkizunera begira jartzea izango da mahai horren funtzioa. “Mahaiaren bueltan eseri eta sareak ehundu nahi ditu Udalak, guztiok elkarrekin etorkizuneko Andoain elkar-lotzeko”, zehaztu du Lasak.

Kultura Mahaiak datorren irailaren 18an, astelehenean elkartuko da, arratsaldeko 18:00etan, Basteroko Ekitaldi aretoan.

Kultura zinegotziak kultur eragile guztiak deitu nahi ditu bertara.

.